3. Données chiffrées : annexe.

Règles de répartition des charges indirectes affectées à l'action subventionnée (exemple : quote-part ou pourcentage des loyers, des salaires, etc.) :

Expliquer et justifier les écarts significatifs éventuels entre le budget prévisionnel de l'action et le budget final exécuté :

Contributions volontaires en nature affectées à la réalisation du projet ou de l'action subventionnée[5] :

Observations à formuler sur le compte-rendu financier de l'opération subventionnée :

Je soussigné(e), (nom et prénom).....
représentant(e) légal(e) de l'association .....

certifie exactes les informations du présent compte rendu.

Fait, le ..... à .....

Signature

[5] Les « contributions volontaires » correspondent au bénévolat, aux mises à disposition gratuites de personnes ainsi que de biens meubles (matériel, véhicules, etc.) ou immeubles. Leur inscription en comptabilité n'est possible que si l'association dispose d'une information quantitative et valorisable sur ces contributions volontaires ainsi que de méthodes d'enregistrement fiables ; voir le guide publié sur « www.associations.gouv.fr »

Règlement 2021

de l'Appel à projets action linguistique

•••

Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia

2021eko araudia

En référence d'une part au Plan de revitalisation de la langue basque ratifié par le Parlement Basque le 10 décembre 1999, et d'autre part au Projet de Politique Linguistique adopté par l'OPLB le 26 décembre 2006, le Gouvernement de la Communauté Autonome d'Euskadi (CAE) et l'Office Public de la Langue Basque ont établi en 2007 un cadre de collaboration permanente en matière de politique linguistique. En 2021, dans la continuité des précédentes conventions formalisées depuis 2007, les deux partenaires ont décidé de reconduire ce partenariat, pour une nouvelle période allant de 2021 à 2025, en tenant compte des évolutions concernant les documents cadres de la politique linguistique, en particulier le Plan d'Action de soutien à la langue basque ratifié par le Parlement Basque le 11 septembre 2013 et le Projet stratégique de l'OPLB adopté par son Assemblée générale le 19 octobre 2018.

Cette nouvelle convention-cadre vient réaffirmer la volonté du Gouvernement de la CAE et de l'Office Public de la Langue Basque de collaborer en matière de politique linguistique, dans le respect de l'autonomie de décision et des règles de fonctionnement de chacun des organismes concernés. Elle fixe le cadre du partenariat entre l'Office Public de la Langue Basque et le Gouvernement de la CAE, et prévoit qu'une Annexe annuelle précisera chaque année les actions menées en partenariat, ainsi que les modalités d'accompagnement financier des opérateurs du Pays Basque de France.

Ainsi, l'Annexe annuelle 2021 prévoit la constitution d'un fonds commun pour soutenir financièrement :

- les opérateurs identifiés de l'action linguistique du Pays Basque de France au moyen de conventions
- les autres porteurs de projets dans le cadre d'un appel à projets.

Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean berretsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia kontuan hartuz, eta bestetik Euskararen Erakunde Publikoak 2006ko abenduaren 26an onartutako Hizkuntza Politika Proiektuak eskaintzen dituzten erreferentzia-markoak errespetatuz, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2007an, hizkuntza politikari buruzko lankidetza iraunkor baten esparruak finkatu dituzte. Lankidetzaren ebaluaketa baikorra eginik, bi izenpetzaileek partaidetzaren berriz bideratzea erabaki dute, hurrenez hurren 2010-2016 eta 2017-2022 epealdietarako, Hizkuntza politikari dagozkion esparru-dokumentuetako garapenak kontuan hartuz, bereziki, 2013ko irailaren 11an Eusko Legebiltzarrak berretsitako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta EEPk 2018ko urriaren 19ko Biltzar Nagusian bozkatu Plan Estrategikoa.

Hitzarmen-marko berri honek, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean, euskararen aldeko hizkuntza politika gaietan lankidetza garatzearen aldeko borondatea berresten du, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz. Hitzarmenak bi erakundeen arteko elkarlanerako esparruak finkatzen ditu, zehaztuz honi loturiko urteko eranskinak urtero lankidetzan burutu jarduerak zehaztuko dituela baita Ipar Euskal Herriko eragileen diruz sustatzeko modalitateak.

Honela, 2021eko urteko Eranskinean lankidetzarako fondoaren osatzea aurreikusia da diruz laguntzeko :

- Hitzarmenez bidez lotu Ipar Euskal Herriko hizkuntza jardueran identifikatu eragileak
- beste edozein eragile pribatu, antolatzen den proiektuen deialdiaren bidez.

Sur décision de l'Assemblée générale du 25 mars 2021 de l'OPLB, le présent règlement fixe les modalités de mise en œuvre de l'**Appel à projets action linguistique** organisé en **2021** en partenariat avec le Ministère de la Culture et de la Politique Linguistique du Gouvernement de la CAE, afin de soutenir les initiatives des opérateurs dans le domaine de la transmission et de l'utilisation de la langue basque.

Objet

Cet Appel à projets a pour objet d'organiser l'affectation des aides aux opérateurs privés du Pays Basque de France œuvrant au développement de la transmission et de l'utilisation de la langue basque.

Les projets et les activités soutenus dans le cadre de ce dispositif devront se réaliser au cours de l'année 2021 (il pourra s'agir d'une tranche d'un projet pluriannuel).

Pour cela, le Gouvernement de la CAE et l'Office Public de la Langue Basque ont décidé de mettre en place un fonds spécifique de **128.500 €**.

I. CONDITIONS D'ACCÈS

1.1 Recevabilité

L'Appel à projets action linguistique est ouvert à tout opérateur associatif ou privé ayant son siège social en Pays Basque de France, officiellement déclaré dans le respect de la réglementation en vigueur.

Ne peuvent pas bénéficier de ces aides :

- les porteurs de projets relatifs à l'organisation de spectacles ou activités à caractère culturel
- les porteurs de projets relatifs à l'organisation de projets d'établissements scolaires
- les entités privées dont la majorité des financements proviennent des institutions publiques.

Pour bénéficier d'une aide financière ou de son versement, l'opérateur ne devra faire l'objet d'aucune procédure en cours avec les autorités de la Communauté Autonome d'Euskadi ou avec l'Office Public de la Langue Basque, relative à la production de pièces administratives ou à des remboursements dus sur des projets antérieurs.

Les opérateurs devront obligatoirement solliciter les sources de financement de droit commun existant dans leur domaine et mentionner impérativement les autres sources de financement, sollicitées et/ou acquises.

Euskararen Erakunde Publikoaren 2021eko martxoaren 26ko Biltzar nagusian hartutako erabakiaren arabera eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin elkarlanean, **2021eko Hizkuntza Jarduera Proiektu Deialdiaren araudi honek, euskararen transmisioa eta erabilera** sustatzeko ekimenak garatzen dituzten erakunde pribatuentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen du.

Helburua

Deialdi honen xedea da Ipar Euskal Herrian euskararen transmisioa eta erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten erakunde pribatuei diru-laguntzak emateko modua arautzea.

Deialdi honen bidez lagunduak izango diren proiektuek eta jarduerek 2021. urtean burutu behar dute (nolanahi ere, urte anitzeko proiektu baten zati izan daitezke).

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak **128.500 €**ko fondo berezi baten jartzea erabaki dute.

I. ONARGARRITASUN BALDINTZAK

1.1 Onargarritasuna

Hizkuntza Jarduera Proiektu Deialdi hau, indarrean dagoen legediaren errespetatuan ofizialki deklaratu eta egoitza nagusia Ipar Euskal Herrian duen edozein elkarte edo eragile pribaturentzat irekia da.

Diru-laguntza hauetaz ezin daitezke balia:

- ikusgarrien edota izaera kulturala duten jardueren antolaketari lotu proiektuen eramaileak
- ikastetxeen jardueren antolaketari lotu proiektuen eramaileak
- merkataritza-entitateak, baldin eta beren kapitalean herri-administrazio batek edo gehiagok badute partaidetza gehiena

Diru-laguntza edo bere ordainketa jasotzeko, baitezpadakoa da eragileak inolako prozedurarik ez izatea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrarekin (eta honen erakunde autonomiadunekin) edo Euskararen Erakunde Publikoarekin, bereziki administrazio-agiri igorpenei edo aurreko proiektuei dagozkion diru-itzultzeei buruz.

Baitezpadakoa da eragileek beren eremuan dauden lege arrunteko finantzamendu iturriak eskatzea eta eskatu edota eskuratu beste finantzamendu iturriak aipatzea.

1.2 Activités éligibles

Les projets et activités qui seront soutenus doivent s'inscrire en cohérence avec le Projet stratégique adopté par l'Office Public de la Langue Basque. Ils devront répondre aux enjeux suivants :

Enjeu 1 : Développer la transmission de la langue basque

- Enseignement :
  - Appui à la sensibilisation et à la promotion de l'apprentissage du basque à l'école
  - Appui à la sensibilisation des familles sur la continuité de l'enseignement bilingue de la maternelle au lycée
- Apprentissage d'initiative personnelle par les adultes :
  - Appui à l'activité de formation du basque aux adultes, hors formation professionnelle
- Petite enfance :
  - Appui à l'accueil des jeunes enfants (dans l'attente de la mobilisation des financements droit commun du domaine)

Enjeu 2 : Développer les domaines de l'usage de la langue basque impactant directement les enfants et les jeunes

- Dans le domaine de l'accueil collectif de loisirs :
  - Appui à l'offre d'accueil de loisirs en langue basque, en complémentarité avec les financements de droit commun de l'accueil de loisirs, et en travaillant à une mobilisation optimale des dispositifs et financements de droit commun pour l'accueil de loisirs
  - Appui à la formation menant aux fonctions d'animateur bilingue
  - Appui à la production de matériel ludique ou pédagogique à caractère pérenne support de l'activité de loisirs en langue basque
- Dans le domaine des activités sportives :
  - Appui au développement pérenne de la langue basque dans l'activité de l'opérateur en direction du public :
    - Formation à la langue basque des salariés ou bénévoles volontaires pour exercer leur activité en basque de manière pérenne
    - Appui à l'intégration du bilinguisme dans les supports de communication à caractère permanent
    - Appui à la production de matériel ludique ou pédagogique support de l'activité sportive en langue basque

1.2 Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Lagundu proiektu eta jarduerek koherenteak izan behar dute Euskararen Erakunde Publikoak onartu Proiektu estrategikoarekin. Honako erronkekin bateragarriak izan beharko dute:

1. erronka: Euskararen transmisioa garatzea

- Irakaskuntza:
  - Eskolan euskara ikasteko sentsibilizazioa eta sustapenaren laguntza
  - ama-eskolatik lizeorainoko irakaskuntza elebidunaren jarraikitasunaz familien sentsibilizazioaren laguntza
- Helduen norbanakoen euskalduntzea:
  - Formakuntza profesionalaz gain diren helduen norbanakoen formakuntza jardueren laguntza
- Lehen haurtzaroa:
  - Haur gazteen harrera euskaraz egitearen laguntza (arlo horretako zuzenbide arrunteko diru-laguntzak mobilizatu arte)

2. erronka: Haur eta gazteengan eragin zuzena duten erabilera eremuak garatzea

- Taldeko aisialdi harrera eremuan:
  - Euskarazko aisialdi harrera eskaintzaren laguntza, aisialdi harrerako zuzenbide arrunteko diru-laguntzekin osagarritasunean, eta arlo horretako zuzenbide arrunteko diru-laguntza eta dispositiboen mobilizazio optimoaren alde lan eginez
  - Aisialdietako animatzaile elebidun izateko formakuntzaren laguntza
  - Euskarazko aisialdi jardueretako izaera iraunkorra duten material ludiko edo didaktikoak ekoizteko laguntza
- Kirol jarduera eremuan:
  - Euskararen garapen iraunkorraren laguntza, eragileak jendearekiko duen jardueran:
    - Langile eta laguntzaileek beren jarduera modu iraunkorrean euskaraz egiteko formakuntzaren laguntza
    - Izaera iraunkorra duten komunikazio euskarrietan elebitasunaren integratzeko laguntza
    - Euskarazko kirol jardueretako izaera iraunkorra duten material ludiko edo didaktikoak ekoizteko laguntza

- Appui à l'organisation d'événements sportifs en langue basque en direction des élèves des trois filières de l'enseignement bilingue

- Dans le domaine de l'éducation artistique et culturelle et des enseignements artistiques :
  - Appui à la structuration d'une offre en langue basque

Enjeu 3 : développer un environnement donnant une réalité sociale à la langue basque en privilégiant les actions les plus structurantes

- Dans le domaine des médias :
  - Appui aux médias d'expression basque, en complémentarité avec les aides de droit commun
  - Appui aux initiatives de collaboration entre médias visant le développement, la consolidation et la structuration qualitative de l'offre médias en langue basque par le travail collaboratif et la mutualisation (en matière administrative, production, ressources techniques, ressources humaines, formation…) et sa mise en visibilité
  - Appui au développement de la langue basque dans la programmation des médias d'expression française, sous réserve d'une place significative dans les contenus

- Dans le domaine d'internet :
  - Appui au développement des contenus en basque sur internet, au regard de ceux déjà existants

- Dans le domaine des jeux vidéo :
  - Appui au développement des jeux vidéo en langue basque, en complémentarité avec l'offre déjà existante, et en mobilisant les dispositifs de droit commun de soutien existants

- Dans le domaine de l'économie du livre (cf. règlement d'intervention spécifique volet édition)

- Dans le domaine de la vie sociale :
  - Appui au développement pérenne de la langue basque dans l'activité de l'opérateur en direction du public :
    - Formation à la langue basque des salariés ou bénévoles volontaires pour exercer leur activité en langue basque de manière pérenne
    - Appui à l'intégration du bilinguisme dans les supports de communication à caractère permanent

  - Irakaskuntza elebiduneko hiru sareetako ikasleentzako euskarazko kirol ekitaldiak antolatzeko laguntza

- Hezkuntza artistiko eta kulturala eta irakaskuntza artistikoaren arloan:
  - Euskarazko eskaintza egituratzeko laguntza

3. erronka: Euskarari gizartean egiazko lekua emanen dion ingurunea garatzea, ekintza egituratzaileenak lehenetsiz

- Hedabideen eremuan:
  - Euskarazko hedabideen laguntza, zuzenbide arrunteko diru-laguntzekin osagarritasunean
  - Elkarlana eta mutualizazioaren bidez, euskaraz ari diren hedabideen eskaintza kualitatiboki garatzeko, sendotzeko eta egituratzeko helburua daukaten lankidetza ekimenak baita hauen ikusgarritasuna ahalbideratuko duen laguntza (administrazio arloan, edukien produkzioan, baliabide teknikoetan, giza baliabideetan, formakuntzan...)
  - Frantsesezko hedabideen programazioan euskararen presentzia garatzeko laguntza, edukietan euskarari leku esanguratsua uzteko uzteko baldintzarekin

- Ingurune digitalean:
  - Interneten euskarazko edukiak garatzeko laguntza, dauden edukiekin alderatuta

- Bideo-jokoak:
  - Euskarazko bideo-jokoak garatzeko laguntza, dagoen eskaintzarekin osagarritasunean, eta dauden zuzenbide arrunteko laguntza dispositiboak mobilizatuz

• Liburuaren ekonomia arloan (ikus argitalpen ataleko araudi berezia)

- Bizitza soziala eremuan :
  - Euskararen garapen iraunkorraren laguntza, eragileak jendearekiko duen jardueran:
    - Langile eta laguntzaileek beren jarduera modu iraunkorrean euskaraz egiteko formakuntzaren laguntza
    - Izaera iraunkorra duten komunikazio euskarrietan elebitasunaren integratzeko laguntza

- Appui aux projets d'accompagnement des entreprises, commerces et services privés à la personne au développement du bilinguisme (signalétique, support de communication, relation au client) s'inscrivant dans les principes de la politique publique linguistique adoptés par les pouvoirs publics et inscrits dans le projet stratégique de l'OPLB

Enjeu 4 : Susciter, maintenir et accroître la motivation, afin de créer dans la société une dynamique d'apprentissage, d'usage et de transmission de la langue

- Appui aux projets impactant directement et durablement la motivation à apprendre et à utiliser la langue basque

1.3 Conditions d'éligibilité

Les projets devront obligatoirement respecter les principes de la politique publique linguistique adoptés par les pouvoirs publics et inscrits dans le Projet stratégique de l'OPLB (politique volontariste, respect de la libre adhésion des acteurs et du volontariat des locuteurs, inscription dans le cadre légal en vigueur, mise en cohérence des politiques : prise en compte de la politique linguistique dans les politiques sectorielles).

Les projets et les activités soutenus devront faire l'objet d'un **autofinancement minimum de 30%**.

L'OPLB appréciera les projets assurant de manière transversale :
- la mobilisation des financements de droit commun existants dans le domaine du projet ou de l'activité portée par l'opérateur
- le caractère structurant du projet par rapport aux publics et objectifs visés

Dans le domaine des **activités sportives**, seront priorisés les projets présentant le(s) caractère(s) suivant(s) :
- l'acquisition de compétences en matière linguistique dans le but de développer une activité en langue basque, en particulier auprès des enfants scolarisés en enseignement bilingue
- la pérennité du projet au regard de la perspective de développement de l'activité en langue basque

Dans le domaine de la **vie sociale**, seront priorisés les projets présentant au moins un des caractères suivants :
- caractère structurant des projets
- impact sur la présence et l'usage pérennes de la langue basque dans la vie sociale
- public impacté (nombre de personnes touchées, publics stratégiques pour la politique linguistique)

- Enpresa, saltegi eta pertsonei zuzendu zerbitzu pribatuetan elebitasunaren garatzeko dauden ekimenen laguntza (seinaletika, komunikazio euskarriak, bezeroekin harremana), podere publikoek onartutako hizkuntza politika publikoko printzipioekin eta EEPren proiektu estrategikoan bat egiten dutenak

4. erronka: Motibapena piztu, azkartu eta egonkortu, euskararen ikastearen, baliatzearen eta transmititzearen aldeko dinamika iraunkor bat jendartean sortzeko gisan.

- Euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioan eragin zuzena eta iraunkorra duten proiektuen laguntza

1.3 Hautagarritasun-baldintzak

Proiektuek nahitaez errespetatu beharko dituzte EEPren proiektu estrategikoan dauden podere publikoek onartutako hizkuntza politika publikoko printzipioak (politika boluntarista, eragileen eta hiztunen parte hartze askearen errespetua, indarrean dagoen lege-esparruan inskribatua, politiken arteko koherentzia: hizkuntza politika arlokako politiketan txertatzea).

Diruz lagundu proiektu eta jarduerek **gutxienez %30eko autofinantzaketa** izan beharko dute.

EEPk zeharka honako hauek ziurtatzen dituzten proiektuak baloratuko ditu:
- zuzenbide arrunteko diru-laguntzen mobilizazioa proiektuaren edo eragileak daukan jardueraren eremuan
- proiektuaren izaera egituratzailea izatea, aurreikusi publiko eta helburuei begira

Kirol jardueren eremuan, lehentasuna izango dute ondorengo izaera(k) dau(z)katen proiektuek:
- hizkuntza gaitasunak eskuratzea euskararen inguruko jarduera garatzeko, bereziki hezkuntza elebidunean eskolatuak diren haurrei zuzenduak direlarik
- proiektuaren iraunkortasuna euskarazko jardueraren garapen menturaren arabera

Bizitza soziala eremuan lehentasuna izango dute gutienez ezaugarri hauetakorik bat izango duten proiektuek:
- Proiektuen izaera egituratzailea
- Bizitza sozialean euskararen presentzia eta erabileraren iraunkortasunean duen eragina
- Inpaktatu publikoa (hunkitu pertsonen kopurua, hizkuntza-politikarentzat estrategikoak diren publikoak)

En revanche, l'Appel à projets OPLB - Gouvernement de la CAE n'a pas vocation à financer :

- Les projets ayant vocation à être financés par des dispositifs de financement de droit commun existants par ailleurs. Toutefois, un appui financier s'inscrivant en complémentarité avec ces aides de droit commun pourra être envisagé s'il est justifié.
- Les projets portés par une personne physique.

L'OPLB se réserve la possibilité d'organiser des entretiens avec les porteurs de projets pour avoir des informations complémentaires.

1.4 Présentation des dossiers

Les porteurs de projet devront produire les documents listés ci-après. L'ensemble de ces documents sont à produire dans les deux langues (hormis la documentation administrative) :

- le formulaire de demande CERFA 12156-05 dûment complété, en tenant compte des consignes suivantes :
  - dans le cas d'une demande concernant plusieurs projets, les porteurs de projet complèteront une fiche par projet (duplication de la page 5 du formulaire)
  - pour les projets présentés par les entreprises : remplacer le numéro RNA par le Kbis
- Le compte-rendu de la dernière Assemblée générale (pour les associations)
- Les comptes approuvés du dernier exercice clos
- Une copie des devis pour les projets concernant :
  - la production de matériel pédagogique et/ou de communication,
  - la formation à la langue basque des salariés ou des bénévoles

Pour les opérateurs faisant l'objet d'une première demande de financement, ou dans le cas de modifications intervenues depuis la dernière demande de financement pour les opérateurs ayant déjà fait l'objet de financement en 2020 :

- Les statuts de l'association
- Le récépissé de déclaration en sous-préfecture
- La liste des dirigeants de l'association
- Un extrait Kbis de moins de 3 mois (pour les entreprises)
- Un relevé d'identité bancaire (RIB)

Le dossier complet de candidature à l'Appel à projets, complété en **2 langues**, devra parvenir uniquement en **format numérique** à l'adresse mail suivante : **d.aire@mintzaira.fr**

La date limite de réception est fixée au **30 avril 2021** correspondant à une période d'un mois à compter de la publication.

Bestalde, EEP eta Eusko Jaurlaritzaren Proiektu Deialdiak helburua ez da honakoen finantzatzea :

- Bestalde dauden zuzenbide arrunteko dispositiboen bidez finantza daitezken proiektuak. Hala ere, justifikatua delarik, laguntza arrunt horiek deialdi honen bidez esleitutako laguntzekin osagarriak balira kontuan hartuko lirateke.
- Pertsona fisiko batek bideratu proiektuak.

Informazio gehigarrien lortzeko, EEPk proiektu-eramaileekin elkarrizketen antolatzeko aukera atxikitzen du.

1.4 Txostenen aurkezpena

Proiektu eramaileek zerrendatutako dokumentuak ekoiztuko dituzte, bi hizkuntzetan (dokumentazio administratiboa ezik) :

- CERFA 121156-05 eskaera formularioa osaturik, ondoko aginduak kondutan harturik :
  - proiektu anitzeko eskaera baten kasuan, proiektu eramaileek fitxa bat beteko dute proiektu bakoitzarentzat (formularioaren 5.orrialdea bikoiztuz)
  - merkataritza entitateek aurkeztutako proiektuentzat : Kbis zenbakia sartu RNA zenbakiaren ordez.
- Elkarteentzat, azken biltzar nagusiaren elkarretaratzearen bilduma.
- Azkenik gakotu kontuen bilana eta emaitza kontu zehatza
- Aurrekontuen kopiak ondoko proiektuentzat :
  - komunikazio edota pedagogia euskarrien ekoizpena
  - profesionalen eta boluntarioen euskarazko formakuntza

Diru-laguntza bat **lehen aldiz** eskatzen duten eragileentzat, edo azkenik burutu diru-laguntza eskaeratik hona aldaketak izan baldin badira, proiektu eramaileek ondoko dokumentuak gehituko dituzte txostenari :

- Elkartearen estatutuak,
- Suprefeturako egiaztapen agiria,
- Zuzendaritza entitatearen osaketa,
- 3 hilabete baino guttiagoko Kbis agiria (merkataritza entitateentzat)
- Banku Nortasun Agiria (BNA).

Eskabide txosten osatua, 2 hizkuntzetan beterik, formatu numerikoan baizik honako helbide elektronikora helarazi beharko da: **d.aire@mintzaira.fr**

Txostenen jasotzeko azken epea **2021eko apirilaren 30rako** finkatua da, deialdiaren argitarapenetik hilabeteko epea utziz.

1.5 Gestion des dossiers incomplets

Il sera délivré au porteur de projet par l'OPLB un certificat accusant réception du dossier complet ou un courrier lui précisant les pièces ou éléments manquants.

A réception de ce courrier, l'opérateur aura 10 jours pour y répondre, faute de quoi sa candidature ne pourra être considérée éligible.

1.5 Osatugabeko eskabideen kudeaketa

Eskatzaileak txostena osatua dela segurtatzen duen agiri bat eskuratuko du ; hala ez bada, txostena osatua izateko eskas diren elementuak zehazten dituen gutun bat jasoko du Euskararen Erakunde Publikoarengandik.

Gutun hori jaso eta, 10 eguneko epe bat utziko zaio eskatzaileari, EEPko eskaerari erantzuteko; baldintza hori errespetatzen ez bada, eskabidea ez da onartua izango.

II. PROCEDURES D'INSTRUCTION

2.1 Gestion de l'Appel à projets

L'organisation et la gestion de cet Appel à projets relèveront de la responsabilité de l'Office Public de la Langue Basque. De par le partenariat établi avec la Communauté Autonome d'Euskadi, ses représentants seront associés aux différentes étapes du dispositif : instruction technique des dossiers, phase décisionnelle, communication.

2.2 Instruction et décision

L'ensemble des dossiers attestés complets feront l'objet d'une instruction technique concertée associant les services de l'Office Public de la Langue Basque et ceux du Gouvernement de la CAE, sous la responsabilité de la Directrice de l'OPLB et de la Directrice de la Recherche Linguistique et de la Coordination du Gouvernement de la CAE.

A l'issue, un projet de délibération argumenté sera présenté conjointement au Président de l'OPLB et au Vice-Ministre de la Politique Linguistique.

L'Assemblée générale de l'OPLB et le Vice-ministère de la Politique Linguistique l'examineront, délibèreront et prendront position sur chacune des demandes exprimées.
Les décisions seront notifiées par le Président de l'OPLB et le Vice-Ministre de la Politique Linguistique.

2.3 Critères d'affectation des aides

Les projets devront répondre aux critères suivants :

- Qualité du projet (faisabilité technique et financière, cohérence des objectifs et modalités avec les principes et priorités du Projet stratégique, exemplarité du projet) : **6 points**
- Impact du projet sur le développement durable de

II. AZTERKETA PROZEDURAK

2.1 Deialdiaren kudeaketa

Deialdiaren antolaketa eta kudeaketa, nagusiki, Euskararen Erakunde Publikoaren esku izango dira. Prozesu horretan Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ordezkarien presentzia eta parte hartzea arlo guztietan bermatuko dira : egitasmoen balorazioa egiterakoan, erabakietan, lagundu egitasmoen zabalkundean.

2.2 Instrukzioa eta erabakia

Euskararen Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu teknikoek hautagaitzarako onartutako txosten guztiak elkarrekin aztertuko dituzte, Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendariaren eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariaren ardurapean.

Aztertu ondoren, erabaki proposamen argudiatu bat aurkeztua izango zaie EEPko Lehendakariari eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeari.

Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar nagusiak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposamen hori aztertuko eta eztabaidatuko dute, eta eskaera bakoitzari buruzko erabakia hartuko.
Erabakiaren berri, EEPko Lehendakariak eta Hizkuntza Politikarako sailburuordeak emango dute.

2.3 Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak

Proiektuek irizpide hauek bete beharko dituzte:

- Proiektuaren kalitatea (egingarritasun teknikoa eta finantzarioa, helburu eta modalitateen koherentzia Proiektu estrategikoaren printzipio eta lehentasunekin, proiektuaren eredugarritasuna): **6 puntu**

la transmission et/ou de l'utilisation de la langue basque : **6 points**
- Evaluation prévue du projet au regard des objectifs et indicateurs de mesure proposés (indicateurs de réalisation, indicateurs de résultats, indicateurs d'impacts) : **5 points**
- Parcours du porteur de projet, reconnaissance de son action : **3 points**

Le seuil minimum des aides financières attribuées dans le cadre de cet Appel à projets est fixé à 10% du coût du projet avec un montant seuil de 1.000 €.

2.4 Règle relative au cumul avec d'autres aides

Les aides attribuées dans le cadre de cet Appel à projets ne sont pas cumulables avec d'autres aides accordées par le Ministère de la Culture et de la Politique Linguistique du Gouvernement de la CAE sur des objectifs similaires.

Elles sont en revanche cumulables avec d'autres aides publiques ou privées dans le respect du plan de financement initial (une aide publique ou privée non initialement prévue et mobilisée après la date de dépôt du dossier sera déduite au moment du versement du solde final, du montant de l'aide accordée dans le cadre du présent Appel à projets).

2.5 Communication de la décision

L'acte officiel des décisions d'affectation sera rendu public par le Président de l'Office Public de la Langue Basque pour le compte des deux organismes et diffusé aux intéressés.

Des conventions précisant les modalités d'affectation des aides décidées pourront être signées avec les bénéficiaires. Dans tous les cas, une convention sera signée avec tout opérateur bénéficiant d'une aide financière supérieure à 23.000 €.

III. MISE EN ŒUVRE DU PROJET

3.1 Obligations des bénéficiaires

Les bénéficiaires des aides affectées dans le cadre de cet Appel à projets ont pour obligation :
- d'accepter l'aide affectée. L'aide sera considérée acceptée, si 15 jours après avoir reçu confirmation de cette aide, l'opérateur ne fait pas connaître son refus de la décision.

- Proiektuaren eragina euskararen transmisioa edota erabileraren garapen iraunkorrean: **6 puntu**
- Aurreikusitako proiektuaren ebaluazioa proposatutako helburu eta neurketa-adierazleen arabera (gauzatze-adierazleak, emaitza-adierazleak, inpaktu-adierazleak): **5 puntu**
- Proiektu eramailearen ibilbidea, ekintzaren azterketa: **3 puntu**

Proiektu deialdi honen bidez esleituko diren diru-laguntzen muga apalena proiektuaren kostuaren %10 izanen da, 1.000 €ko diru kopuru minimo batekin.

2.4 Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Proiektu Peialdi honen bidez esleitutako diru-laguntzak Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak gisa bereko helburuentzat emandako laguntzekin bateraezinak dira.

Aldiz, agindu honetako diru-laguntzak bateragarriak dira, beste edozein erakunde publiko zein pribatuk, hasierako finantzaketa plana errespetatuz (hastapenean, hots txostena aurkezterakoan, iragarria ez zen erakunde publiko zein pribatu batek banatu diru-laguntza, Proiektu Deialdi honen baitan aurkeztu finantzaketa planean iragarri saldo orokorretik kendua izanen da).

2.5 Ebazpena

Euskararen Erakunde Publikoaren Lehendakariak sinatutako ebazpen ofiziala zabaldua izango zaie eskatzaileei, banan-banan, eta publikoki hedatua, bi erakundeen izenean.

Bestalde, eta horretaz gain, zenbait onuradunekin hitzarmena izenpetu ahal izango dute, Proiektu Deialdi honen bidez jasotako laguntzaren zehaztasunak jasoz; nola nahi ere, hitzarmena derrigorrez izenpetuko da 23.000 € baino gehiagoko diru-laguntza jasoko duen eragile bakoitzarekin.

III. MISE EN ŒUVRE DU PROJET

3.1 Onuradunaren betebeharrak

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek ondoko hauek bete behar dituzte :
- esleitutako diru-laguntza onartzea. Onuradunek dirulaguntza egokitu zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean uko egiten ez badiote onartu egin dutela ulertuko da.

- d'utiliser l'aide dans le respect des objectifs pour lesquels celle-ci est accordée.

3.2 Modalités de versement

Les versements de l'aide auront lieu en deux temps :
- 50% de l'aide à l'acceptation par l'opérateur de la décision, et, le cas échéant, à la signature de la convention,
- le solde après présentation des pièces justificatives, conformément aux dispositions du point 3.3.

Le versement d'un acompte supplémentaire pourra être effectué à l'opérateur qui en ferait la demande et qui serait en mesure de justifier de l'état d'avancement du projet.

3.3 Justificatifs à fournir

Dès la réalisation du projet ou des activités, l'opérateur devra présenter l'ensemble des pièces justificatives à l'OPLB, et ce **au plus tard pour le 28 février 2022** :
- le Cerfa de compte-rendu financier de subvention n°15059*02 comprenant 3 feuillets :
  - un bilan qualitatif de l'action ou de l'activité
  - un tableau de données chiffrées
  - l'annexe explicative du tableau
- les justificatifs de dépenses (factures…)

Selon le cas, l'OPLB précisera lors de la demande de production de justificatifs, les documents complémentaires à produire :
- rapport d'activité
- bilan et compte de résultat
- version analytique des comptes
- autres justificatifs (version numérique des supports créés, photos…)

L'ensemble des pièces justificatives fera l'objet d'un examen par les services de l'OPLB au regard des critères suivants :
- Conformité et cohérence par rapport au projet et au budget initialement présentés
- Prise en compte des éléments fixés au point 2.4.

Les documents à fournir seront à produire en 2 langues, français et basque

La production des pièces complémentaires ou manquantes sera si nécessaire notifiée par l'OPLB à l'opérateur qui disposera de 15 jours pour les produire.

Le montant du solde versé sera fixé compte tenu des justificatifs produits au regard du budget initialement présenté.

- diru-laguntza agindutako helburu zehatzetarako erabiltzea.

3.2 Diru-laguntzaren ordainketa

Diru-laguntzaren ordainketa bi unetan egingo da:
- Diru-laguntzaren %50a diru-laguntza eskatzaileak esleitutako laguntza onartu bezain laster edo, hala badagokio, hitzarmena izenpetutakoan, eta,
- Diru-laguntzaren saldoa justifikazio agiriak aurkeztu ondoren, 3.3 puntuaren ezarritakoaren arabera.

Gainerateko aurrekari baten isurpena aurreikusi liteke, eragileak hala eskatzen balu eta proiektuaren aitzinamendu mailaz bermeak emanda.

3.3 Diru-laguntza justifikatzea

Proiektua edo jarduerak gauzatuak izango direlarik, eragileak EEPri justifikazio agiriak aurkeztu beharko dizkio, **berantenik 2022ko otsailaren 28rako**:
- Diru-laguntza eskaeraren bildumarako CERFA 15059-02 formularioa, 3 orrialdez osatua :
  - Jardueraren bilan kualitatiboa
  - Datu zifratuen taula
  - Taularen eranskin argigarria
- Xahutze egiaztagiriak

Kasuen arabera, egiaztagirien ekoizteko mementoan, EEPk ondoko dokumentu gehigarriak eskatzen ahalko dizkio eragileari:
- Ekintzen txostena
- Bilana eta emaitza kontua
- Kontuen bertsio analitikoa
- Beste egiaztagiriak (ekoiztutako euskarrien bertsio numerikoa, argazkiak,…)

Euskararen Erakunde Publikoaren zerbitzuek egiaztagiri guztiak aztertuko dituzte ondoko irizpideen arabera :
- Aurkeztutako proiektuaren eta honen aurrekontuaren begirako egokitasuna eta koherentzia
- 2.4 puntuan zehaztutako irizpideen kontutan hartzea.

Helarazi behar diren dokumentuak, 2 hizkuntzetan ekoiztu beharko dira, frantsesez eta euskaraz

Beharrezkoa bada, falta diren piezak edota pieza osagarrien ekoiztea EEPk eragileari gutunez eskatuko dio, horretarako 15 eguneko epea utziz.

Diru-laguntzaren saldoaren isurpena aurkeztutako justifikazio agirien arabera finkatua izanen da, oinarrizko aurrekontuarekin parekatuta.

Si, après examen des justificatifs produits, le montant de l'aide définitive s'avère être inférieur à l'(aux) acompte(s) versé(s), l'opérateur procèdera au remboursement à l'OPLB, de tout ou partie d(u)es versement(s) antérieur(s), et ce dans un délai d'un mois maximum après réception du document adressé par l'Office Public de la Langue Basque.

Aurkeztu egiaztagiriak aztertuta, behin-betiko diru-laguntza, aurretik eskuratu isurpena(k) baino ttipiagoa balitz, edota, dena delako arrazoiengatik eskuratu diru-laguntza osorik edo partez itzuli behar izanez gero, eragileak diru-kopurua Euskararen Erakunde Publikoari itzuliko dio, honek bidalitako likidazio-ebazpena eskuratu eta hilabeteko epean.

3.4 Communication de l'aide apportée

Les opérateurs bénéficiaires d'une aide devront faire apparaître le soutien de l'Office Public de la Langue Basque et du Vice-ministère de la Politique Linguistique du Gouvernement de la CAE sur tout support de promotion et de communication (affiches, dépliants divers, intervention dans la presse…) concernant les projets et activités aidés.

3.4 Emandako babesaren aipamena

Diru-laguntza jasotzen duten eragileek Euskaren Erakunde Publikoak eta Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak eskainitako babesa adierazi beharko dute diruz lagunduriko proiektu edo jardueraren ondorioz egindako iragarki guztietan (afitxak, eskuorri ezberdinak, prentsa bitarteko hedapenak …).

3.5 Non-respect des obligations

a) Seront considérés comme manquement aux clauses établies les cas suivants :

- L'utilisation totale ou partielle de l'aide allouée pour l'organisation d'activités autres que celles ayant fait l'objet de l'affectation
- Dans le cas d'une mise en œuvre partielle du projet, le non-remboursement de la subvention accordée dans le délai imparti
- De manière générale, le non-respect d'une disposition décrite dans le présent document

b) Tout cas de manquement tel que décrit ci-dessus entraînera le remboursement de l'aide versée auprès de l'OPLB.

3.5 Betebeharren ez errespetatzea

a) Arauak bete gabetzat joko dira honako kasu hauetan:

- Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan zehaztutakoez beste jardueretarako erabiltzea
- Proiektua edo jarduerak ez badira osoki gauzatzen, zehaztutako diru-kopurua ez itzultzea, horretarako emandako epean
- Beste xedapen batean, orokorrean, nahitaezkotzat jotzen diren gainerako egitekoak ez betetzea

b) Artikulu honetako aurreko idatzi-zatian aipatutako ez betetzeren bat gertatuz gero, jasotako dirua eta horren legezko interesak itzuli beharko zaizkio Euskararen Erakunde Publikoari.

IV. DISPOSITIONS FINALES

4.1 Première disposition

Toute réclamation relative au présent règlement peut être transmise auprès du Président de l'OPLB, à partir du jour suivant sa publication et dans un délai d'un mois.

4.2 Seconde disposition

Le présent règlement entre en vigueur à sa publication.

•••

IV. AZKEN XEDAPENAK

4.1 Lehen xedapena

Agindu honen aurka interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote Euskararen Erakunde Publikoaren Lehendakariari hilabeteko epean, kaleratu eta hurrengo egunetik hasita.

4.2 Bigarren xedapena

Agindu honek kaleratu eta hurrengo egunetik hasita izango du eragina.

•••

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Euskararen erakunde publikoa
Office public de la langue basque

Règlement 2021
« Volet Edition »

adossé au règlement de l'Appel à projets action linguistique 2021

•••

2021eko hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren araudiari uztartu

« Argitalpena atala »
2021eko araudia

Règlement 2021 « volet Edition »
adossé au règlement de l'Appel à projets action linguistique 2021

•••

3 domaines d'intervention :
❶. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque.
❷. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque.
❸. Soutien à la mise en place d'animations pédagogiques en langue basque.

2021eko hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren araudiari uztartu
« Argitalpena atala » 2021eko araudia

•••

3 sustapen-lerro:
❶. Euskarazko liburuaren argitaratzea sustatu.
❷. Euskarazko liburuaren merkaturatzea edo honen promoziorako lan tresnen sorrera eta jarduerak sustatu.
❸. Euskarazko animazio pedagogikoen antolaketa sustatu.

Cadre

En référence d'une part au Plan de revitalisation de la langue basque ratifié par le Parlement Basque le 10 décembre 1999, et d'autre part au Projet de Politique Linguistique adopté par l'OPLB le 26 décembre 2006, le Gouvernement Basque et l'Office Public de la Langue Basque ont établi en 2007 un cadre de collaboration permanente en matière de politique linguistique. En 2021, dans la continuité des partenariats précédents formalisés depuis 2007, les deux partenaires ont décidé de reconduire ce partenariat pour une nouvelle période allant de 2021 à 2025, en tenant compte des évolutions concernant les documents cadres de la politique linguistique, en particulier le Plan d'Action de soutien à la langue basque ratifié par le Parlement Basque le 11 septembre 2013 et le Projet stratégique de l'OPLB adopté par son Assemblée générale le 19 octobre 2018.

Cette nouvelle convention-cadre vient réaffirmer la volonté du Gouvernement Basque et de l'Office Public de la Langue Basque de collaborer en matière de politique linguistique, dans le respect de l'autonomie de décision et des règles de fonctionnement de chacun des organismes concernés. Elle fixe le cadre du partenariat entre l'Office Public de la Langue Basque et le Gouvernement Basque, et prévoit qu'une Annexe annuelle précisera chaque année les actions menées en partenariat, ainsi que les modalités d'accompagnement financier des opérateurs du Pays Basque de France, parmi lesquels **l'Appel à projets action linguistique**, dont les modalités sont fixées dans le règlement adopté par l'Assemblée générale du 25 mars 2021 de l'Office Public de la Langue Basque. Pour cela, le Gouvernement Basque et l'Office Public de la Langue Basque ont décidé de mettre en place un fonds spécifique de **128.500 €**.

Le présent **règlement du Volet Edition, adossé au règlement de l'Appel à projets action linguistique 2021**, a été établi en 2009 et réactualisé après évaluation réalisée en 2013 en organisant des temps de consultation des opérateurs ayant déposé des demandes d'aides financières d'une part, et des temps de travail avec le département livre d'Ecrit Cinéma Livre Audiovisuel (ECLA, anciennement ARPEL) d'autre part.

•••

Esparrua

Eusko Legebiltzarrak 1999. urteko abenduaren 10ean berretsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia kontuan hartuz, eta bestetik Euskararen Erakunde Publikoak 2006. urteko abenduaren 26an onartutako Hizkuntza Politika Proiektuak eskaintzen dituzten erreferentzia-markoak errespetatuz, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak euskararen hizkuntza politika tratatzen duten gaietan, mugaz gaindiko lankidetza iraunkor baten esparruak finkatu dituzte. Lankidetzaren ebaluaketa baikorra eginik, bi izenpetzaileek partaidetzaren berriz bideratzea erabaki dute, hurrenez hurren 2010-2016 eta 2017-2022 epealdietarako, Hizkuntza politikari dagozkion esparru-dokumentuetako garapenak kontuan hartuz, bereziki, 2013ko irailaren 11an Eusko Legebiltzarrak berretsitako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana eta EEPk 2018ko urriaren 19ko Biltzar Nagusian bozkatu Plan Estrategikoa.

Hitzarmen-marko berri honek, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean, euskararen hizkuntza politika tratatzen dituzten gaietan lankidetza garatzearen aldeko borondatea berresten du, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuz. Hitzarmen-markoak bi erakundeen arteko elkarlanerako esparruak finkatzen ditu, eta honi loturiko urteko eranskinak urtero lankidetzan burutu jarduerak zehazten ditu baita Ipar Euskal Herriko eragileen diruz sustatzeko modalitateak, horien artean, **hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia,** zeinen modalitateak EEPren 2021ko martxoaren 25ko Biltzar Nagusiak onartu araudiak zehazten dituen. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak **128.500 €**ko fondo berezi baten jartzea erabaki dute.

Honako **Argitalpena ataleko araudia, 2021eko hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiaren araudiari uztartua** dena, 2009. urtean geroztik plantan jarri da, eta geroztik egokitua izan da, ebaluaketa 2013. urtean egin ondoan, batetik diru-laguntza eskaerak helarazi dituzten eragileak kontsultatuz, eta bestetik Ecrit Cinéma Livre Audiovisuel (ECLA, aitzinagotik ARPEL) erakundeko liburuaren departamenduarekin lan uneak burutuz.

•••

Article 1 : Objet

Le présent règlement du **volet Edition**, adossé au règlement de l'Appel à projets action linguistique, fixe les modalités spécifiques de soutien aux opérateurs en matière d'édition en langue basque visant à mettre à disposition du public une offre éditoriale complète et de qualité pour promouvoir l'usage social de la langue.

Article 2 : Domaines d'intervention

Le **volet édition** est structuré en **3 domaines d'intervention** :

❶. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque.

❷. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque.

❸. Soutien à la mise en place d'animations pédagogiques en langue basque.

❶. Soutien à l'édition d'ouvrage en langue basque
• Cette aide vise à soutenir les éditeurs dans leur activité d'édition d'ouvrage en langue basque dans un contexte économique du livre en langue basque rendu difficile par la situation sociolinguistique de la langue basque et par un marché restreint ne permettant pas toujours de rentabiliser les ouvrages produits.

❷. Soutien aux actions et à la production d'outils de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque
• Cette aide vise à soutenir les éditeurs dans la réalisation d'opérations de promotion ou de commercialisation d'ouvrage en langue basque unilingue ou plurilingue.

❸. Soutien à la mise en place d'animations en langue basque
• Cette aide vise à soutenir la mise en place d'animations en langue basque dont l'objet est de promouvoir la lecture, l'écriture et/ou les métiers du livre en milieu scolaire, périscolaire et extrascolaire.

1. artikulua: Helburua

Hizkuntza jarduera Proiektu Deialdiari uztarturik, **Argitalpena atala**ren araudiaren xedea, euskarazko argitalpenaren alorrean lanean diharduten eragileei zuzendu diru-laguntzen arautzea da, kalitatezko argitalpen eskaintza osatua publikoarentzat eskuragarri jarriz eta euskararen erabilpen soziala areagotuz.

2. artikulua: Sustapen-lerroak

Argitalpena atala, **3 sustapen-lerrotan** egituratzen da:

